

## Hernaniko liburutegiak Liburutruk gunea sortu du

### Jendeak behar ez dituen liburuak trukatzeko zerbitzu berri bat da

HERNANI. Atzo jakitera eman zutenez, Hernaniko udal liburutegian Liburutruk gunea berria martxan jarri dute. Liburutruk, bere izenak esaten duenez, liburuak trukatzeko espazioa da.

Azaldu zutenez, bere helburua gustuko ez ditugun liburuak edo behar ez ditugunak beste jendearekin trukatzea da. Gainera, irakurketak iradokitzeko beste bide bat irekitzen dela argudiatu zuten. Azkenik, berrerabilpena, birzikla-tze modu bat den neurrian, sustatu egingo duela defendatu zuten udal liburutegitik.

Liburutruken funtzionamendua oso erraza da. 'Edonork interesgarri eta egoera onean eta jada behar ez duen libururen bat baldin badu, ekar dezake eta horretarako prestatu dugun tokian utzi. Era berean, bertan bere intereseko zerbait ikusten badu berarentzat hartu eta eramateko aukera dauka', argitu zuten.

Gunea berri hau liburutegiko lehenengo eta bigarren pisuen arteko eskailburuan dago. 'Hantxe zaharberritu dugun armairuan liburuak eskura eta bistan daude nahi duen edonorentzat', animatu dute liburutegiko arduradunek.